

Merkatuaren segmentazioa

Merkatuaren segmentazioa bezeroak hainbat irizpideren arabera taldekatzea da, euren behar, ezaugarri edo jokabidearen arabera. Segmentazioaren helburua da enpresek beren zerbitzu edo produktuak talde konkretu batekin egokitu eta harreman eraginkorra ezartzea.

Gure bezeroak segmentatuta daude, 16 eta 30 urte bitarteko gazteentzat bideratuta egongo dira. Adin tarte hau aukeratzea erabaki dugu alde batetik 16 urterekin gazteak nerabezaroan murgildurik daudelako eta antsietatea eta estres egoerak pasatzea ohikoak izaten direlako. Egoera honetan, gazte horietatik askok ez dakite egoera horiei aurre egiten edo denbora gutxi ematen dute haiek deskonektatzeko (ikasketak direla eta). Eta, bestetik 30 urteko pertsonak ardurak izaten hasten dira nahiz eta oraindik gazteak izan, eta horrek estresa piztea eragin ditzake baita ere (ardura gehiegi). Hortaz, gure zerbitzuarekin ongizate emozionala lortzea jarduera fisikoaren bidez bilatzen da. Bezeroekin harremanak manteduko ditugu. Baina ez da beharrezkoa denbora guztian honekin harremanetan egotea, hau da; pertsonak gure laguntza behar duen momentuetan guregana etor daiteke laguntza bila.

Gure enpresak **merkatu segmentatua** hartzen du oinarri, 16 eta 30 urte bitarteko gazteen ezaugarri jakinetan zentratuz, ongizate mental eta fisikoaren beharra duten talde espezifiko bati zuzenduta dagoelako gure eskaintza. Merkatu honek aukera ematen digu zerbitzu espezializatuak eskaintzeko, bezeroen beharretara egokituz.

Haien ezaugarri esanguratsuenak hauek dira:

Buruko ongizate ezarekin lotutako arazoak dituzten pertsonentzat, hainbat erronka sor daitezke, hala nola estresa edo antsietatea kudeatzeko zailtasunak, egoera pertsonal zailen ondoriozko karga emozionala, deskonexioa behar izatea, loarekin arazoak izatea, konzentratzeko zailtasunak edo autoestima eta motibazio falta sentitzea. Egoera horiek hobeto kudeatzen laguntzeko, yoga eta meditazio bezalako jarduera fisikoak aukera bikainak dira.

Halaber, **jarduera fisikoak** beste modu batean egin nahi dituzten edo ongizate fisiko orokorra lortu nahi duten pertsonentzat oso onuragarriak izan daitezke. Gainera, gorputzeko adarretan arazoak dituztenei, hala nola sorbaldako edo hanketako arazoak dituztenei, berariazko programak eskaintzen zaizkie, adibidez, "espalda sana" programak. Jarduera hauek, ongizate fisikoa eta mentala sustatzeaz gain, oreka eta osasuna lortzen lagunduko dute.

